



Eguraldi txarrari aurre eginez, giroa alaitu zuten Amalurrekoek.



Herriko 5 artisauek ere parte hartu zuten azokan. Ezkerrean Koro Ortega eta eskuinean Olga Blanco.



Artisauen azoka euripean

Igandean egin zen Artisauen Azoka Okendo plazan

Santa Ana Artisauen Azokako XXVII. Edizioa euripean joan zen igandean Okendo plazan. Goizerako eguraldi hobeagoa iragarrita bazegoen ere, euria egin zuen. Arratsaldean berriz, ez zuen atertu ere egin eta azokako hainbat partaidek arratsalde erdian postuak jaso eta alde egin zuten.

Azokan artisau ugari lanean ikusteko aukera pare-

gabea izan zuten hurbildu ziren herritarrek: zapatariak, egurraren taila, makramea, erroskilak...

Herritarrek azokan

Hala ere, eguraldi txarrari aurre eginez gogoz aritu ziren Amalur Trikitilari taldeko musikariak arratsaldeko eguraldi kaxkarrarekin ilundutako giroa alaituz.

Guztira azokan eskulan-

gintzako 25 postu eta elikadurako beste 13 egon ziren atzokoan. Horietatik 5 herrikoak ziren, guztiak eskulane-takoak; Koaran Bitxigintza (Coro Ortega); Biyak Bat Erretiratuen Elkarteko eskulane taldea; Lasarte-Oriako Ehozirizaleen Taldea; Teila margo-tuak (Leon Amondarain) eta Colorarte eta Mimo bitxigintza eta birziklaketa (Olga Blanco). •



Hainbat postu arkupean jarri ziren. Irudian, herriko Ehozirizaleen taldea.

TXINTXARRIREN udako azken zenbakia da hau

TXINTXARRIREN hurrengo zenbakia irailaren 12an argitarauko dugu

Ondo izan eta irailera arte!

ALBISTEAK/3

Haitz Mitxelena igerilariak junior mailako Espainiar txapelketan parte hartu du Palma de Mallorcan

KIROLA/6

Elisabeth Arroyo, padel jokalaria Espainiako Pertsona Gorren III. Txapelketan garaile bikoteka



Santa Ana eguneko ekitaldien laburpena eta parodiaren nondik-norakoak /4-5

ika
haur eta gazteentzako jantziak
laster irekiko dugu!

Geltoki Kalea 3 • Lasarte-Oria 20160



Zorion-agurrak



Larraitz

Ze esatezu! Aurten hemen ospatuko ditugu! Zorionak 'bollito'!



Aitana

Handitzen handitzen... Txokomarrubizko muxuak. Zorionak marimatraka!



Eneritz

Zorionak polita! Falta da baina... ondo pasa zure egunean eta 'karra-marro' gozako jan!




Xabat

Zorionak! Portero oso ona zarela esan didate! Segi horretan eta egun ona pasa. Izebak.



Ambar

Zorionak Inivikita zure guraso eta anaiaren partetik.



Unax

Zorionak etxeko txapeldunari familiaren partetik.



Nerea eta Mikel

Zorionak bikote! Ondo pasa bidaian eta horrela jarraitu urte askuan!



Julen

Zorionak zure 5. Urtebetzean eta muxu handia aitona-amona eta izeba-osabaren partetik.



Katixa

Zorionak milaka muxu dantzari jator horri. Aita, ama eta Ariane-rengandik.



Unai

Zorionak maizia. Txokolatezko muxuak familiaren partetik. Oso ondo pasa



Enara

Zorionak Artista! Ondo pasa 6. urtebetzean eta ez pasa txutxeekin. Muxu pila bat!



Erika

Zorionak potxola! 6 muxu handi zure familiaren partetik.



Oskar eta Amaia

Zorionak bikote! Ba zen garaia, kostatu zaizue! Hemendik aurrera badakizue zer egin behar duzuen...

Heriotzak

• Enrique Cob Carrasco, uztailaren 25ean
• 26 urte zituela

• Angel Martinez Andujar, uztailaren 21ean 71 urte zituela

• Constantino López Matias, uztailaren 21ean 95 urte zituela



• Manuel Lizaso Ayestaran, uztailaren 21ean 82 urte zituela

Jaiotzak

• Ane Barreto Ramos, uztailaren 23an.



Txintzarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintzarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintzarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Garaje plaza eder bat dugu alokairuan Atsobakarren. Tel.: 943 376115, Marisol.

• Garajeko marra bat alokatzen da Atsobakarren. Harremanetarako zenbakia, 648 614 769.

• Etxe bat alokairuan hartuko nuke Lasarte-Orian. 667 808 934 M.Afzaal

• Garaje bat salgai Michelinen. 18 m. Karratu ditu eta lehenengo pisuan dago. 12.000 euro. Harremanetarako: 606 137 150.

Salerosketak

• Korrika egiteko makina saltzen da. Domyos tf 160 modeloa. Azaroa arte garantian. Prezioa 150 euro. Tel.: 633 710 503.

• Txirringan haurra eramateko aukia eta kaskoa erosiko nituzke. Harremanetarako: 685 755 109.

• Autoan jartzeko haurrentzako aukia salgai, Grupo 0koa, homologatua. Tel.: 697 743 747.

Lan-eskaintzak

• Euskaraz dakien neska bat behar dugu irailetik aurrera bi haur zaintzeko. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak arte izango litzateke lana. Tel.: 685 751268.

• Pertsona euskaldun bat behar da Lasarte-Oriako taberna batean lan egiteko. Abuztu osoan eta urtean zehar asteburuetan, extra moduan. Tel.: 629 951 931.

Lan-eskariak

• Neska bat eskaintzen da garbiketa lanetarako, haurrak edo helduak zaintzeko. Tel.: 629 408 227.

• Edozein lan egingo nuke, ahal bada publizitate banaketan 667 808 934 M.Afzaal

• Neska bat eskaintzen da lanerako: adinduak eta haurrak zaintzen, etxeak garbitzen edo beste edozein lan. Tel.: 943 365149.

• Haurrak zaindu eta pertsona adinduei paseatu, erosketak egiten lagundu, etb. egiteko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako: 654 105 484.

Oharrek jartzeko:

txintzarri@txintzarri.info • www.txintzarri.irragarkilaburrak.com
www.txintzarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Ospitaleetara doan autobusaren ordutegia

Bidaiaren iraupena 15 minutuko da

Lanegintzan	Lasarte-Oriatik irteera (Tajamar errotondatik)	7:30, 8:30, 9:30, 10:30, 11:45, 12:45, 13:45, 14:45, 15:45, 16:45, 18:00, 19:00, 20:00.
-------------	--	---

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 29
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 30
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 31
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 1

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteartea, 2
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 3
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 4
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Haitz Mitxelena igerilaria Mallorcan

■ Udako Espainiako txapelketan esperientzia ona izan du kirolari juniorrak
 ■ Infantil mailan Iñigo Ibarburu lehiatuko da datorren astean Valladolid-en

Buruntzaldea taldeko Haitz Mitxelena igerilariak Udako Espainiako txapelketan parte hartu du lehen aldiz. Bere marka hobetu eta orotara 33. postua eskuratu zuen lasarteoriarrak uztailearen 14tik 19ra bitartean Palma de Mallorcan burutu zen txapelketa honetan. Datorren astean, abuztuaren 2tik 6ra Valladoliden jokatuko den infantil mailako txapelketan taldeko bi ordezkari izango dira, Itxaso Tolosa hernaniarra eta Iñigo Ibarburu lasarteoriarra.

Udako Espainiako igeriketa txapelketak burutzen ari dira asteotan eta bi herritarrek eskuratu dute parte hartzeko txartela. Haitz Mitxelena uztailean izan da Mallorcan Junior mailakoan eta Iñigo Ibarburu datorren astean joango da Valladoliden egingo den infantil mailakora.

Abuztuaren 2tik 6ra jokatuko da Valladolid-en Udako Espainiako Infantil Mailako Txapelketa eta bertan Buruntzaldea IKTko bi ordezkari izango dira, Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu. 100 eta 200 bizkar probatan lehiatuko da eta Iñigo Ibarburu lasarteoriarra aldiz 100 metro tximeleta eta 50, 100 eta 200 libre probatan.


Lehen esperientzia

Haitz Mitxelenak lehenengo aldiz lortu du Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eta normala denez urduri egon bazen ere, 200 tximeleta frogan bere marka hobetu eta sailkapen orokorrean 33.



Arg.: Buruntzaldea IKT

Borja Apeztegia entrenatzailearen iritziz denboraldi bikainari amaiera ona eman dio Haitz Mitxelenak Mallorcako txapelketan.



Arg.: Buruntzaldea IKT

izan zen. Uztailearen 14tik 19ra bitartean izan ziren Mitxelena eta bere entrenatzailea Palma de Mallorcan Udako Junior mailako Espainiako Txapelketan. Borja

Apeztegia entrenatzaileak adierazi digunez, "bere estreinaldia izan da maila honetako txapelketa batean eta esperientzia bikaina bizi izan du. Txapelketari dago-

kionez, Haitz urduri eta antsietate puntu batekin bazen ere, igerileku luzeko bere marka hobetu du (2'19"69); bere seriean bosgarren izan da eta orotara 33garren sailkapenean 5 postu aurreratuz".

Lasarte-Oriako igerilariak lehen postuetan izateko aukerarik izan ez duen arren gustura da bere entrenatzailea: Maila honetako txapelketetan lehen zeinen zailak diren jakinda eta 200 tximeleta bezalako proba zail batean are gehiago, Haitzek lan bikaina egin duela esan beharra daukagu".

Haitz Mitxelenak bukatu du denboraldia. Beraz, entrenatzailearen iritziz, denboraldi bikain baten ondoren atsedean hartzeko garaia du orain. •

Indarkeriaren aurkako mozioa proposatu du PSEko Zaballosek

Lasarte-Oriako PSE-EE alderdiko Jesus Zaballos bozemaileak bakearen aldeko eta terrorismoaren gaitzespena proposama aurkeztu du Udalean hurrengo osoko bilkuran eztabaidatzeko.

Hala ere, bere proposamenak soilik ETAK eragindako hilketak gaitzesteko eta arbuizatzeko eskatzen du, "erakunde terroristaren behin betiko eta baldintzarik gabeko desegitea, eta era berean, armak entregatzeko eta kide guztiak justiziaren esku jartzeko". Soilik, indarkeriaren biktimen aitortpena proposatzen duenean aipatzen da beste talde batzuen indarkeria, "gaur egun iragana bada ere aitortza eta ordain berdina merezi duten sufrimendua eragin zutelako".

ETAren desegitea

PSE-EEren iritziz, behin hau-teskundeak igaro eta, Udalak zein Batzar Nagusiak eratu eta gero, beharrezkoa da berriro ere, 2010eko azaroaren 10eko Memoriaren Egunean euskal erakunde ezberdinetan Euskadiko alderdi politikoei hartutako konpromisoak berrestea.

Era berean, proposamenen esaten denez, beharrezko da halaber, ETAren desegitea eskatzea eta gure herriari gertatu diren ekintza ezberdinetan guztiak gaitzestea terrorismoa behin betiko amaitzeko eta baka, askatasuna eta elkarbizitza sendotzeko.

Hiru eskaera

Beraz, hiru eskaera konkretu egiten ditu, batetik indarkeriaren ondorio eta biktimei buruzko zenbait printzipioen onarpena, bestetik Lasarte-Oriako Udalak adieraz dezala ETAK eragindako 857 hilketak guztiak eta bakoitza arbuio eta gaitzespena, eta azkenik Udalak eskatu dezala ETAren behin betiko eta baldintzarik gabe desegiteko, armak entregatzeko eta kide guztiak justiziaren esku jartzeko.

Sei dira onartzeko proposatutako printzipioak. Lehenengoan, euskal herritarrek bakean eta askatasunean, totalitarismo, indarkeria eta bazterketaren mehatxurik gabe bizi ahal izateko eskubidea dutela aldarrikatzen da eta euskal gizartearen eta erakunde oinarrizko helburua indarkeriaren amaiera eta bakearen lorpena dela.

Beste bost printzipioak indarkeriaren biktimen memoriari buruzkoak dira. •



Ostiral musikala

Udako opor giroan murgilduta, aurreko ostiralean bi kontzertu eskaini ziren Lasarte-Orian. Sustrai tabernan Bordeleko Fayakhan reggae taldearen emanaldia izan zen. Arazo teknikoak medio emanaldia ordu bete inguru berandu hasi bazen ere, gustura jo zuten eta entzuleak ere atsegin handiz entzun eta dantzatu zuten. Mendi Kafe Rock tabernan berriz, Psicoacoustic-en beste emanaldi bat izan zuten entzungai. Herritar ugari hurbildu zen orangoan, Rolling Stones taldearen bertsoak ikustera.



Turistei Lasarte-Oriako Udaletxe berria eta bere ezagarrri bereziak erakutsi zizkien gidari batek: barrutik hutsa dagoela, leihorik ez duela, kristal ilunak eta argi gorriak dituela...



Udara pasatzera Sahararik etorri diren haurrak igo ziren parodia hasi aurretik eta kanpamenduetako egoera azaldu zuten.



Buruntz-Azpiko Jose Manuel Aranburuk jaso zuen zapi gorri eta oroiargira.



Obretanbetei eta Kasketahandi akusatua, "uminduak", Watson eta Holmes.



Belen Esteban eta "Salvame Divinus" saioa sortu nahi duen apaiza.



Winston Pitillori jarraituz, besteak beste, Santa Ana, epaileak eta abokatuak ere erre egin zuten eta keaz kezkatuta suhiltzaileek itzali zituzten guztiak.

Gaurkotasun handiko Santa Ana parodia

- Pil-pilean dauden albisteen errepasso sakon eta zorrotza egin zuten Santa Ana eguneko antzerki umoretsuan
- Umorea eta txantxa izan ziren nagusi emanaldian ■ Kultur Etxea bete egin zen herriko aktoreen lana ikusteko

Krisi egoera eta hauen erantzuleak, kalean haserre adierazi duten herritar minduak, udal ordezkari zahar eta berriak, tabakoaren legea, Udaletxe berria,... gatza eta piperra bota zuten parodian parte hartu zutenek gaurkotasuna duten hainbat gai eta nahasketa horretatik emanaldi polita, barregarria eta interesgarria ikusteko parada izan zuten astearte gauean Kultur Etxea goitik behera bete zuten herritarrek. Aurretik egin zen ohiko kalejira aurten laburragoa izan zen, Semblante Andaluz elkartetik Kultur Etxera.

JON ALTUNA

Eguraldi txarra zela eta ez zen Santa Ana parodia Okendon egin eta Kultur Etxea txiki geratu zen. Ikusleen kopurua gutxi gorabehera 500 lagunera mugatu zen, sarrerak agortu egin ziren eta askok ezin izan zuten Kultur Etxera sartu. Eurragatik ohiko kalejira ere laburragoa izan zen, Semblante Andaluz elkartetik zuzenean joan ziren parte hartzaileak kultur etxera eta

parodia berak ere "sufritu" zuen aldaketa, gidoigileek Okendon egiteko pentsatu baitzuten: horrela ere daitekeen espazio batetik, Okendotik galarazia dagoen kultur etxera aldatu ziren, eta parodiaren beste pasarte batean, Udaletxe berriari kanpotar talde batek bere gidari turistikoarekin bisita egin behar zion. Beraz, distantziatik, oholza gainetik, baina egin zioten Udaletxe berriari bisita-errepassoa eta gaueko unerik barregarriena izan zen.

Sahararik oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etorri diren zapi haur eta Lasarte-Oriako Saharar herriaren lagunak taldeko Txema Benito igo ziren lehen lehenik oholtzara Arantxa Genau aurkezlearekin batera. Herriko hainbat familiari esker etortzen dira Algeriako desertuetan dauden errefuxiatuen kanpamentuetako haur hauek eta horregatik esker ona adierazi zieten oholzatik.

Sahara azken 35 urtean zatitirik egon den herria dela gogoratu zuten, batzuek Marokoren menpean eta beste 180.000 Saharako desertuaren zatirik gogorrenetarik baldintza zailetan. Hain juxtu kanpamentu horietan jaiotako haurrek, Saharako bandera eta ikurrina eskutuan zutela igo ziren oholtzara.

Omenaldia

Ondoren Buruntz-Azpi elkar-tarea omendu zuten antolatzaileek. Manuel Sagardiari esker gutxienez 61 urtean egin den parodian herritarren parte hartzea "ezinbestekoa" izan dela azpimarratu zuten eta aurten bereziki 50 urtean herriko kirol eta kultur ekitaldiak bultzatu dituen elkarrean lana eskertzeko Buruntz-Azpiko Jose Manuel Aranburu lehendakariari zapi gorria jantzi eta oroi-garri bat eman zioten.

Parodian Sorkunde Obretanbetei eta Josune Kasketahandi epaitu zituzten, eta bertan bere papera bete zuten epaile eta honen idazkariak, hain abokatuak, fiskalak, bi aguzilek, (hauek lan asko izan zuten sarri epaikaeta gela husten)... eta

oholtzan izan ziren noski, Santa Ana eta San Joakin, erdi erdian, alde batean, banderadunak, eta bestean Basajaun bi laguntzaileekin. Azkenean Basajaunek eman zuten epaia eta sutara bidali zituen bi epaituak, aurretik ordea hainbat lekuko pasa ziren epaikaetatik.

Udal ordezkariak

Lehenengo aingeru eta sorginak koplara zorrotz eta satirikoak kantatu ziren alkate ohi eta zingetoziei. Epaileak hauek entzun eta alkate berriaren aginduz, gerora dirua aurrerazteko parodian argi eta mikrofono bakararekin arituko direla jakinarazi zuten.

Gero Pablo Barrio alkate berria bera igo zen oholtzara Sherlock Holmes detektibearen paperean. Watson lagunarekin krisiaren zergatiak ikertzen ari zuten eta gaur egungo egoeraren kritika zorrotza bihurtu zen, batez ere oholtzara gainera sumindu taldea igo zenetik. Hauek akusatuen kontrako oihuak egin zituzten eta azkenean kanporatzeko agindu

ziren epaileak bi aguzaziei. Aurretik fiskalak bere iritzia argi aldarrikatu zuten, akusatuak eta krisiaren sortzaileek oro har, "jokatu eta irabazten dutenean mozkin edo irabazten beraiantzat da, eta aldez galzten dutenean, galera denen artean ordaindu behar dugu".

Tabakoaren legea

Hurrengo "Winston Pitillo" eusko-amerikarra agertu zen, erretzaile amorratu, tabakoaren lege berriaren onurak nabarmentzeko. Hainbat argudio eman zituen: kalean giroak hobera egin duela, terraza gehiago eta hobeak juri direla, haur eskolako begiraleak eskatuz... Winston hasi eta epaikaetan ziren askok erre egin zutenek, kez bete zen ingurua eta suhiltzaileak sartu zirenean amaitu ziren erretze kontuak.

Hurungo, elizaren beste era bateko krisia, fedelunena alegia, telebistan "Salvame Divinus" saio berezia sortuz konpondu nahi zuen apaiza igo

zen, eta bere atzetik Belen Esteban bere "Pablo" defendituz. Alkate aldaketan oinarrituz Santa Ana parodia San Pablo parodia bihurtu beharko dela, San Pedroen ordez San Pabloak eta Santa Ana ordez San Joakin ospatuko direla aipatu zituen.

Udaletxe berria

Gidari turistikoa atera zen ondoren kanpotar talde bati Lasarte Oriako erakusteko asmoarekin. Kubatar, senegaldar, nikaraguar, saharar, asteasuar eta aiarra ziren turistaren artean. Udaletxe berria erakutsi ziren berak, estilo modernoko eraikinean Oteizaren eragina nabarmena dela aipatu, barrutik hutsa hutsa dagoelako, negu eta uda aire egokitua erabiliko dela, leihorik gabe egin dutela, leihorik gabe egin dutela inork bere buruz beste egin ez dezan, kristal ilunak dituela barnean koskabiloak nola ukitzen dituzten ikusi ez dadin,... eta gauean dituen argi gorrien misterioa eta udaltzainek gaueko bantand lan egin nahia ere argitzen saiatu ziren. "Bugaite ez dute itxi lekuz aldatu dute".



Egungo egoerarekin "haserretuek" kanpamentua jarri zuten Okendon.



Semblante Andaluz elkarten afaldu zuten parodian parte hartu zutenek.



Kalejira egin zuten elkartetik Kultur Etxera. Irudian, aingeru, apaiza eta deabrua.



Santa Ana gaueko parodia Erketzen dantzatzatuko Sorgin Dantzarekin amaitu zen urtero bezala.

Kiroletako agenda

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 06

10:30etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako jubenilek LXIV Soraluzeko sarian parte hartuko dute.

IGERIKETA

Igandea 31

17:30etan, VIII.Txigudi Badiako trabesia. Hondarrabia

Abuztuaren 2tik 6ra

Espainiako Udako infantilen txapelketan Itsaso Tolosa eta Iñigo Ibarburu arituko dira. Valladolid.

ZALDI LASTERKETAK

Igandea 31

96. Zaldi lasterketa denboraldia Donostiako Hipodromoan

5. jardunaldia

17:15ean, Igo lasterketa, TAX ASESORIA Y GESTION, 2.200 m.

Francesco Cara (FR)	Antigaria (FR)
Suddenside	Black Moon (IRE)
Barathea Bay (IRE)	Carabelle
Libretrasto	Donaskaia (FR)
Don Alvaro (FR)	Keity
Gamberro	Ramallah
Amorebieta	

18:05ean, 2. lasterketa, MINISTERIO DE MEDIO AMBIENTE Y MEDIO RURAL Y MARINO, 2.000 m.

Rayen	Goimendi
Ambasador	Lionel Star (FR)
Eco Jar	Iruña
Indiano	
Don Hernando Hab	

18:40ean, 3. lasterketa, BARES DEL HIPODROMO, 1.600 m.

Pedreña	Reddy on Tango
Hulrick	Sidra (FR)
Genoveva	Fussy
Le Big Boss	Saioa
Vettstori (FR)	Texedu
Aka Bay (FR)	

19:15ean, 4. lasterketa, FRIGO, 1.600 m.

Gintonic Doble (IRE)	Namia (FR)
Cañadio (IRE)	Queenside (USA)
Secretside (IRE)	Valle de Roncal
Rosa do Barbado (IRE)	Capital
Le Muguet (IRE)	Wolfgang
Dreizehn (IRE)	Percus Mol

19:50ean, 5. lasterketa, EL PAIS - CRITERIUM NACIONAL - MMAMRMM, 1.400 m.

Azabache	Flash McQueen
Galileus	Liberalia
Giggolo Star	
Hamelin	
Leitzaran	
Matusalen	
Victor's Bet	
Emsi	

Elisabeth Arroyo Padel jokalaria

“Gure kasuan, begiak dira entzuten dutenak”

Ekainaren 25ean, Espainiako txapeldun titulua eskuratu zuen pertsona gorren arteko lehiaketan

Duela hilabete Donostian Espainiako pertsona Gorren arteko III. padel txapelketa egin zen. Hone-tan, Elisabeth Arroyo lasarteoriatarak Zarauzko Mirian Argoterekin bikote eginez, Estatuko titulua lortu zuen. Elisabethekin egon gara berari buruz gehiago jakiteko.

NEREA EIZAGIRRE

Elisabeth Arroyo Usabiaga lasarteoriatarra 32 urte ditu. Herritar bat gehiago dirudien arren, ezintasun fisiko bat du, gorra da. Horrek ez dio bizitaz eta kirolaz gozatzeko aukera kentzen.

Duela 17 urte, Gipuzkoako gorren elkartearen sartu zen eta geroztik dago bertan kirola egiten. Horri esker, Espainiako pertsona Gorren arteko III. padel txapelketan parte hartu du Mirian Argote zarauztararekin bikote osatuaz eta txapela ekarri du etxera.

Noiztik eginen duzu padela?

Urte eta erdi da padelean jokatzeko hasi nintzenetik. Lagunekin hasi nintzen, modu partikularrean.

Beste kirolik eginen al duzu?

Ez, padelarekin nahiko dut. Gainera, gorputzak ez dit gehiago eskatzen.

Baina lehen kirolik eginen al zenuen?

Tenisa eta areto-futbola ere egin ditut.

Tenisa txikitan egin nuen, hemen, Lasarte-Orian, Michelinen eta

nire irakaslea Iñaki Altuna zen. Lau edo bost urte izan ziren eta Lasarte-Oriako txapelketan parte hartzen nuen.

Areto-futboleko gorren elkarteko taldean ibili nintzen eta horrekin ere Estatu mailako txapelketetan parte hartzen genuen. Batzuetan txapeldunak ginen eta besteetan, bigarren postuarekin geratzen ginen.

Ez al da zaila gorrentzat taldeko edo binakako kirolak egitea?

Ez, ikusmena dugu. Gure kasuan, begiak dira entzuten dutenak. Begiak dute garrantzia.

Padelera bueltatuz, nolatan parte hartu zenuen Espainiako txapelketan?

Gipuzkoako gorren elkartearen kirola eginen dut.

Elkarteko kide batek apuntatzeko aukera zegoela esan zidan eta nik ahal bagenuen parte hartuko genuela erantzun nion.

Entrenatzailerik ba al duzue?

Bai, irakaslea dugu eta entzulea da.

Duela hiru hilabete hasi ginen berarekin padeleko teknika ezagutzeko.

Hala ere, ez zenuen arazorik izango tenisa egin eta gero, ezta?

Ez, antzekoa da. Erdian sarea du eta teknika antzekoa da. Baina paretak daude.

Eta horregatik oso azkarra da padela, ezta?

Ongi prestatua egon behar zara.

Non entrenatzen duzue?

Donostian jokatzeko dugu, elkarteko jendea bertan biltzen da.

Pista gehiago daude. Lasarte-Orian berria dago, baina bakarra.

Noiz entrenatzen duzue?

Orain oporretan gaude. Baina denboraldian astean behin entrenatzen genuen, batzuetan bitan.

Izan ere, padela garestia da. Guztia, pisten alokairua, raketa, etab. guk ordaindu behar dugu guztia.

Asko entrenatu behar al duzue txapelketetarako?

Ez, maila normala da. Gorren arteko txapelketa da, ez dago entzulerik, beraz, gutxiago gara.

Txapelketa horiek Europako mailako txapelketetan parte hartzeko aukera ematen al dute?

Ez, ez dute horrelako baliorik. Ez gara Europako txapelketetarako sailkatzen, Estatuan bakarrik jokaten dugu.

Gustatuko al litzazuke entzuleen aurka lehiatzea?

Bai, noizbait probatuko nuke.

Hurrengo urtean jarraituko al duzu padelarekin?

Bai, jarraitzeko asmoa dut. Eta ahal ditudan txapelketetan parte hartzeko ere bai. •



Egunero

Erakusketa

JOSEVISKY, Joseba Larratxe artistaren komikien erakusketa, "Umore zintak marrazten saiatu zen komikilaria". Jalgin.



Egunero

Erakusketa

Begoña Muniategiren "Munduko emakumeak" margo erakusketa. Olio eta akriliko materialaz egindako margoak. Jalgin, egun osoan zehar.



Zubietako Jaiak

Uztailak 29

Umeen Eguna Zubietan

10:00 Jolasen hasiera; 14:00 Bazkaria; 16:00 Jolasen jarraipena.

19.30 Txokolatada; 22:30 Herri antzerkia.

Uztailak 30

Gau Pasa Eguna Zubietan

16:00 Mus txapelketa; 17:30 Zubietako bikotekako III. Bizikleta lasterketa; 17:30 Umeen antzerkia.

00:00 Triki-Rock Jaia: Mendeku Itxua eta Gozategi; Ondoren, Trikihots taldearen erromeri bikaina.

Uztailak 31

San Inazio Eguna

06:00 eta gero...; 09:00 zikiro prestaketaren hasiera; 10:30 Meza; 11:00 Errebote partida.

14:00 Zikiro jana; 18:30 Gorritiren Showa; Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga Trikitilariak eta buruhandiak.

22:30 Ansorregi eta Larrañaga Trikitilarien jarraipena; 00:00 Jaien amaiera (Suziri, suzko-zezen, etab-ekin...).

Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga Trikitilarietako jaien amaiera.

Abuztuak 3

Xanixtebanak Urdaiaga auzoan, Usurbilen

San Esteban Eguna

09:00; Txupinazoa!; 11:00 Meza nagusia; Ondoren, Zahagi Banaketa (Espumosos Txapeldunen eskutik) eta Usurbilgo Dantza Taldearen emanaldia.

14:00 Jubilatuen bazkaria Zumeta jatetxean (Berriola Fagor eta Ingemarren eskutik); 17:30 Helduen arteko jokoak!

Eta ondoren, hirugihar banaketa Laja eta Landakanda trikitilarien laguntzaz.

Usurbilgo Jaiak

Abuztuak 4

Xanixtebanak Urdaiaga Oilasko Bitzaileen Eguna

06:00 Oilasko biltzaileen iteera; 14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria Aialde-Berri sagardotegian; Gauean, Akerra gaztetxean kontzertuak.

Abuztuak 5

Xanixtebanak Urdaiaga

19:00 Buruhandiak

23:00 Mendeku Itxuaren kontzertua.

Ondoren, erromeria Trikihots taldearekin.

Abuztuak 6

Xanixtebanak Urdaiaga Umeen Eguna

Egun osoan zehar, plater tira-keta izango da.

11:00 Marrazki lehiaketa; Ondoren, haurren jolasak eta buruhandiak; 16:00 Mus txapelketa; 18:00 Umeentzat antzerkia: Hiru, bi zast... egizu jolas!; Ondoren, txokolatada eta buruhandiak.

21:00 Herri afaria (norberak ekarria, kafea, postrea eta kopa jai batzordearen eskutik)

Ondoren bertsolariak Andoni Egaña, Julio Soto eta Maialen Lujanbio. Gai jartzaila; Bota Punttuba.

Gauean, Jalisko Band taldearekin erromeria.

Abuztuak 7

Xanixtebanak Urdaiaga

10:30 Meza; Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketarekin festei amaiera emango diegu.

Usurbilgo Jaiak

Abuztuak 26

Atxegaldeko festak

14:00 Jai batzordearen bazkaria Mahaspildegian; 17:30 Poteo Txaranga.

20:00 Txupinazoa eta txoznen irekiera. Abesti berriaren estreinaldiarekin zuzenean.

Ondoren, buruhandiak; Jarraian, Luntx Mundiala.

Gauean, kontzertuak: Itziazarren semeak, Bizardunak, Dj Larra.

Abuztuak 27

Atxegaldeko festak

11:00 Haurrentzako jolasak eta oparien banaketa.

14:00 Herri bazkaria (norberak etxetik ekarria).

16:00 Mus Txapelketa (15:30-16:00 apuntatzeko epea).

17:00 Boleibol txapelketa, kaleka.

18:30 Txokolatada; Ondoren, buruhandiak

21:00 Herri Afaria (Josune gaua alaitzen).

Gauean, Mendeku Itxua eta Joxpa.

Abuztuak 28

Atxegaldeko festak

12:00 Usurbilgo dantzariak.

13:30 Salda eta haragi egosi banaketa.

17:00 Toka Txapelketa.

18:00 Tortila Patata Txapelketa.

19:00 DJ Buru.

22:30 Jaiak amaitzeko Traka eta Suzko Zezena.

Liburutegiko udako ordutegia

Astelehenetik ostiralera 08:00 - 14:00 eta
astelehen arratsaldetan 16:00 - 20:00

Larunbatetan itxita



Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Kiroldegiko udako ordutegia

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, astelehenetik ostiralera igerilekua 07:00-12:30 eta 17:00-21:30 egongo da zabalik eta kiroldegia bera 07:00-13:00 eta 17:00-22:00. Sauna 09:00-12:00 eta 17:00-21:00. Larunbatetan eta jai egunetan igerilekua 09:00-13:00; sauna itxita; igandeetan dena itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea astelehenetik ostiralera 10:00-12:30 eta 17:00-21:00. Larunbatetan 09:00-13:00 eta igandeetan itxita.

Zabaleta baserriko errotonda eraikitzen

Goiegí Ibarreko eta Zabaleta Berriko hirigintza-garapen lanekin jarraituz, Nasipa SL enpresak Hernani Bidea eta Buenos Aires Aldapa arteko

errotanda berria egiteko lanak martxan jarri zituen, Zabaleta baserriaren ondoan.

Lanek ibilgailu-zirkulazioan eragina dute eta behar bezala adierazita dauden behin behineko desbideratzeekin irtenbidea ematen zaio.

Lan hauek irailean amaitzea aurreikusita dago. Lero hauen bidez, Lasarte-Oriako Udalak barkamena eskatu nahi du sortu daitezkeen eragozpenengatik.

Udalaren kirol-instalazioak bi astez itxita egongo dira

Lasarte-Oriako Udalaren Kirol-Instalazioen 2011. urterako egutegiaren arabera, abuztuaren 1etik 15era bitartean (bi egunak barne), bi asteko geldialdi teknikoak egongo da, instalazioetan mantenimenterako eta garbi-

ketako lanak egiteko, eginkizun horiek ezin baitira egin instalazioak martxan direla, bai halaber erabilera kolektiboko igerilekuen erregelamendu sanitarioaren arabera nahitaez egin beharreko ekin-tzak egiteko, egun horietan Kirol Instalazioko Abonatuak beste Instalakuntza hauek erabiltzeko aukera izango dute: Urnieta (Tel.. 943 008 328).

Etexeraten elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, uztailaren 29an Lasarte-Oriako Etexeratak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko

aliantza Jose Luis grabaketarekin, lau bizikleta, hiru orloju, urrezko pultsera, eraztun bat, diru zorro bat, neskaen esku-muturreko bat, bi zilarrezko pultsera, bi betaurreko graduatu bata zorroarekin, bi telefono mugikorak bata poltsarekin, haur zamarra bat, larruzko zamarra eta belarritako batzuk.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza edo kexa argitaratzeko

TXINTXARRI aldizkariko *Eskutitzen* atalean edo *Dagokionari* atalean zure iritzia, kexa edo gutun bat idatzi nahi baduzu, idatzia zurekin batera izen-abizenak eta nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar diguzue guk argitaratu ahal izateko.

Hori bai, zuren izena ez baduzue argitaratu eman nahi, ez da aterako, beste modu batera sinatu daiteke.

Bide batez eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien iritzi eta kexak adierazteko TXINTXARRI aukeratu dutenei.

Urdanpilleta eta Lizaso garaile

■ Etxezarreta-Bardaji bikotearen aurka nagusitu ziren Eneko Urdanpilleta eta Unai Lizaso Santa Ana Pala Txapelketako finalean

■ Partidu polita eta lehitua jokatu zuten astearte arratsaldean Loidi-Barrengo frontoian

Santa Ana Egunean, Santa Ana Pala txapelketako finala egiten da herrian. Aurten Xabi Etxezarreta-Mikel Bardaji eta Eneko Urdanpilleta-Unai Lizaso bikoteen artean jokatu zen finala Loidi-Barrengo pilotalekuan. Arratsaldeko 19:40ak inguru eman zitzaion hasiera partidari eta Urdanpilleta-Lizaso bikotearentzat izan zen aurtengo txapela. 25. edizioan ere torneoaren bultzatzaile izandako Joxe Angel Etxebeste omendu zen.

ITXASO MORENO

Mikel Bardaji eta Xabi Etxezarreta bikoteak, Eneko Urdanpilleta eta Unai Lizasoren kontra lehiatu ziren astearte arratsaldean Santa Ana Pala Txapelketan. Finala lehiatua izan zen, baina azkenean Urdanpilleta eta Lizasok garaipena eskuratu zuten, 27-35 markagailuekin.

Bardaji eta Etxezarretak partida irabazten hasi ziren Bardajik bi paretetara egindako tanto polit bati esker. Lizasok eta Urdanpilletak berdinketa eskuratu eta hortik aurrera eurentzako izan zen partidua nagusitasuna. 12 tantora partidua berdintzea lortu zuten Etxezarreta eta Bardaji bikoteak, baina berriro ere Urdanpilleta eta Lizasok markagailuan diferentzia ezartzea lortu zuten. Berdinketa eman zen berriro ere 20ra, baina hortik aurrera

Etxezarreta eta Bardajik ezin izan zioten markagailuan ezarri zen diferentziari buelta eman eta partidua 27-35 bukatu zuten Urdanpilleta eta Lizasoren alde. Eneko Urdanpilletarentzat ere torneooko jokalaria onenaren saria izan zen epaimahaikideen aburuz.

Tanto luzeak eta indartsuak ikusteko parada egon zen Loidi-Barrengo frontoian jokatuako finalean. Ordu eta erdiko iraupena izan zuen partida ederra ikusi zen.

3. eta 4. postuak

Jon Peio Artetxe eta Iñigo Arluziagak Begiristain anaien kontra jokatu zuten hirugarren eta laugarren postua. Honetan partidu parekatua ikusteko parada egon zen Loidi-Barrengo frontoian. Azkenean, Begiristain anaietzako izan zen garaipena 33-35 markagailu estu batean. Beraz, Jon Peio Artetxe eta Iñigo Arluziagarentzak izan



Asteartean, 3. eta 4. postuetarako etafinalean partu hartu zuten palariak txapelketako arduradunekin argazki ofizialerako jarri ziren.



Partida polita jokatu zuten. Urdanpilleta-Lizaso bikoteak Etxezarreta-Bardaji bikotea 27-35 emaitzarekin garaitu zuten.

zen laugarren postua eta Begiristain anaietzat brontzea.

Etxebeste omendua

Aurten, Santa Ana Pala Txapelketako bultzatzaile izandako Joxe Angel Etxebeste utzi egin gintuen. Horregatik txapelketaren 25. edizioan omendu nahi izan zuten bere alargunari eta semeari plaka oroigarri bat emanez. Etxebeste Santa Ana Pala Txapelketako bigarren edizioan Patxi Castro bikotekidearekin txapela eskuratu zuen. •



Joxe Angel Etxebesteren familiari oroimen plaka eman zioten finala hasi baino lehen.



ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147
linterneriailarreta@yahoo.es



ILLARRETA
ITURGINTZA



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8
Tel.: 943 361752
USURBIL
illarreta@yahoo.es

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak



- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua